

MOZIO ARRUNTA, ETXEGABETZEAK STOP ELKARTEAK AURKEZTUA, TOLOSAKO ALOKAIRUAREN MERKATUKO ESKAINTZA FALTAGATIK ETA PREZIO ALTUENGATIK TENKATUTAKO EREMUAK DEFINITZEKO, ETA ESTATUKO ETXEBIZITZA LEGEAK EZARTZEN DITUEN MUGAK GAUZATZEKO

JUSTIFIKAZIOA

Tolosa bizitegi-larrialdiko egoeran dago: alokatzeko 4 etxebizitza eskaintzen ditu (logela bakarreko 2 etxebizitza, 700 eta 900-1.000 euroren truke), eta hori ez da nahikoa udalerriko eskariari erantzuteko; izan ere, Etxebiden 618 familia-unitate daude Tolosarako izena emanda alokairu-eskatzaile gisa (horietako 385 udalerrian erroldatuta daude).

Etxebiden izena emandakoen artean daude etxebizitza-premia berezia duten familiak, adingabeak ardurapean dituzten guraso bakarreko familiak edo bestelako familiak, eta independizatu nahi duten 35 urtetik beherakoak, batez beste 12.700 euroko diru-sarrerak dituztenak.

Alokairu-eskaintzaren arazo nabarmen baten aurrean gauden arren, Tolosan azken urteotan eskaini diren alokairu urriak 700 eta 900 euro bitarteko prezioan daude, eta, eta horrek etxebizitza alokatu nahi duten familien ahalegina haien diru-sarreraren % 66tik gorakoa izatea dakar (gomendatutako ahalegina % 30ekoa da). Beraz, beharrezkoa da, beherago zehaztuko ditugun beste neurri batzuekin batera, alokairuen prezioak mugatzeko neurriak, edo 5 higiezin baino gehiagoko edukitzaileei oraingo alokairuen epeak luzatzeko neurriak hartzea, besteak beste.

Etxebizitza Legearen 18. artikulua haxe dio: «1. Las Administraciones competentes en materia de Vivienda podrá declarar, de acuerdo con los criterios y procedimientos establecidos en su normativa reguladora y en el ámbito de sus respectivas competencias, zonas de mercado residencial tensionado...».

Beraz, **udalerriek ekimena har dezakete** etxebizitzaren arloan dituzten eskumenen esparruan, **Eusko Jaurlaritzari eskatzeko udalerrri hori osorik edo udalerrri horretako zenbait eremu eremu tenkatu izendatzeko, Legean aurreikusitako bi baldintzetako bat betetzen bada.** Hona hemen baldintzok:

«a) Que la carga media del coste de la hipoteca o del alquiler en el presupuesto personal o de la unidad de convivencia, más los gastos y suministros básicos, supere el treinta por ciento de los ingresos medios o de la renta media de los hogares.

b) Que el precio de compra o alquiler de la vivienda haya experimentado en los cinco años anteriores a la declaración como área de mercado de vivienda tensionado, un porcentaje de crecimiento acumulado al menos tres puntos porcentuales superior al porcentaje de crecimiento acumulado del índice de precios de consumo de la comunidad autónoma correspondiente».

Neurri horiek gure Etxebizitza Legeak eta lege hori garatzeko erregelamenduek aurreikusten dituzten beste neurri batzuekin batera ezarri behar dira; hala nola **etxebizitza hutsak mobilizatzeko** neurriekin eta **erabilera turistikoko etxebizitzak edo gelakako alokairuak kontrolatzeko** neurriekin, hala, alokairu egonkorreko etxebizitzek ez dezaten ihes egin gizarte-premiak asetzen ez dituzten beste alokairu-eredu horietara. Era berean, guztiz beharrezkoa da alokairu sozialak sustatzeko **baliabideak nabarmen handitzea**, eta udalerrien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko **koordinazioa hobetzea** etxebizitzaren arloan.

Hori guztia dela-eta, hona hemen aurkezten dugun

MOZIO ARRUNTA

1.- Tolosako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Udalak alde aurretik hala eskatuta, udalerria etxebizitza-eremu tenkatutzat hartzeko, Etxebizitza Legeak eremu horietarako ezartzen dituen neurriak ahalik eta azkarren hartu ahal izateko.

Tolosan, 2023ko urriaren 23an



Ander Figuerido Zubiria
EH Bilduko bozeramailea

